

VERA ASTRONAUTA

Susanna Isern

Marta Moreno



EUSKARAZKO
argitalpena

VERA ASTRONAUTA




Susanna Isern
Marta Moreno



Vera-k Akademia Espazial Handian ikastearekin
egiten du amets, astronauta izan nahi du!

Behin hara iritsita, bertan neska gutxi direla ikusiko du,
baina horrek ez du geldiaraziko.

Verak bere indar guztiakin borrokatuko du bere ametsa egia bilakatzeko.



Bilduma berean:
Martina Futbolari

ISBN: 978-84-10406-32-2 www.nubeocho.com



9 788410 406322





*Neska guztiei, inork eta ezerk ez ditzan gelditu,
eta nahi duten oro izan daitezen.*

Susanna Isern

Munduak zure ideien eta talentuaren beharra du. Aurrera!

Marta Moreno

É

É G A L I T È

Vera Astronauta
Egalité Bilduma

© testuarena: Susanna Isern, 2025
© irudiena: Marta Moreno, 2025
© argitalpenarena: NubeOcho, 2025
© itzulpena: Maialen Mujika, 2025
www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *Vera Astronauta*

Lehen argitalpena: Apirila, 2025
ISBN: 978-84-10406-32-2
Gordailu Legala: M-273-2025


Eslovenian inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debebatuta argitalpen honen kopiaketa.

VERA ASTRONAUTA

Susanna Isern
Marta Moreno




nubeOCHO

Akademia Espazial Handia, munduko astronauta-eskolarik
ospetsuena, urruneko oihan baten erdian kokatzen zen.

Astronauta izan nahi zuten haur guztiek
proba oso zailei aurre egin behar izaten zieten.

Onenek baino ez zuten lortzen akademian onartuak izatea.




Vera neska ausarta zen, argia bezain kementsua.

Ahalegin handia egin ostean, bere ametsa betetzea lortu zuen:
Akademia Espazial Handian ikastea.



Bertan astronauta bihurtzea lor zezaken.
Vera klaseekin hasteko desiatzen zegoen.





Lehenengo egunean, Polaris komandanteak ikasleei harrera egin zien.

—Ongietorri Akademia Espazial Handira. Gaur klase eta entrenamenduen lehen eguna da.

Zuetako bakoitzak erronka zailenei aurre egin beharko die.


—Ze ondooooo! —oihukatu zuten, aho batez.

—Kurtsoaren amaieran proba bat gainditu beharko duzue. Puntuazio onena lortzen duten hiru ikasleek Marte planetarako espedizioan parte hartzeko aukera izango dute.



Txalo zaparrada batek hartu zuen gela. Verak ingurura begiratu zuen.
Harritu egin zen gela hartan beste neska bat besterik ez zegoela ikustean.

—Kaixo, ni Vera naiz.
—Ni Ana. Zein neska gutxi garen!
—Beno, horrek berdin dio, ziur denborarekin neska gehiago
etorriko direla eskolara.





Kurtsoa aurrera zihoala, Vera, Ana eta gainontzeko partaideek astronauta izateko entrenamendu gogorra jaso zuten.

Astronomia ikasi zuten, ariketa fisikoan trebatu ziren eta pilotatzen ere ikasi zuten.



Vera izugarri saiatzen zen, eta taldeko onenen artean zegoen; baina Leo izeneko mutiko batek bekaizti begiratzen zion.

Verak ez zuen ulertzen zergatik.



Egun batez, Polariz komandanteak gogo handiz itxaroten zuten iragarpena egin zien.

—Heldu da proba burutzeko garaia. Emaitza onenak dituzten hiru ikasleek burutuko dute Marterako espedizioa.

Vera hotzikara batek zeharkatu zuen. Munduan beste ezer baino gehiago desio zuen hautatuetako bat izatea. Leo eta bere lagunak, ordea, txutxu-mutxuka zebiltzan, zergatik ote?

